# Bestelako Xedapenak

## ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

**4459**

AGINDUA, 2010eko irailaren 1ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, unibertsitateko tituludunak prestatzeko Garraio Zuzendaritzaren bi bekatarako deia egin eta haien oinarri-arauak onartzeko dena.

Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren 10.32 artikuluaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio lurreko garraioen, garraiorako kontratazio-zentroen eta salgaien terminalen arloko eskumen esklusiboa, horrek Konstituzioaren 149.1.20 artikuluan xedaturikoa ezertan galarazi gabe. Administrazio alor horretako eginkizunak Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari dagozkio maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 10. artikuluaren arabera. Artikulu hori zati batean aldatu zen Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren uztailaren 30eko 20/2009 Dekretuaren 7. artikuluaren bidez.

Eta eginkizun horiek behar bezala bete ahal izateko, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta egitekoak finkatzen dituen azaroaren 24ko 607/2002 Dekretuaren 141.f eta k artikuluen arabera Garraio Zuzendaritzari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko garraiorako politika logistikoak garatzea, bai eta Zuzendaritzaren jarduketa eremuari dagozkion diru-laguntzak nola bideratu proposatzea.

Horiek horrela, Agindu honen helburua da, prestakuntzarako hainbat bekatarako deia egitea, garraio-enpresetan antzeman diren hainbat gabezia, hala nola, prestakuntza eta antolamendu egokirik eza, gainditzen lagunduko duten profesional gehiago izateko.

Beketarako hautatutako gaiek garraio sektorearentzat interes berezia duten arloak ukitzen dituzte, batzuek garapenerako potentzial handia erakusten duten ekintzen barruan sartzen direlako, eta besteek izangaiek sektorearen errealitatean, sektorearen eskakizun eta potentzialitateetan murgiltzea erraztuko dutelako.

Horrek guztiak on egiten dio garraio arloari, herriaren ehun ekonomikoa sendotu egiten baitu, bai eta Administrazioari berari ere, ikerlanen emaitzak kudeaketa hobetzeko erabiltzen baititu; hortaz, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak komenigarritzat jo du aurreko ekitaldietan hasitako bekak emateko

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

**4459**

ORDEN de 1 de septiembre de 2010, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, por la que se convocan dos becas de la Dirección de Transportes de formación para titulados/as universitarios/as y se aprueban sus bases reguladoras.

Conforme al artículo 10.32 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco corresponde a esta Comunidad Autónoma la competencia exclusiva en materia de transportes terrestres, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 149.1.20 de la Constitución. El ejercicio de las funciones referentes a dicha área de actuación administrativa ha sido conferido al Departamento de vivienda, Obras Públicas y Transportes por el artículo 10 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, modificado parcialmente por el artículo 7 del Decreto 20/2009, de 30 de julio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

Para el adecuado ejercicio de las citadas funciones, el artículo 14.1, párrafos f) y k) del Decreto 607/2009, de 24 de noviembre, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, atribuye a la Dirección de Transportes el desarrollo de las políticas logísticas para el transporte en la Comunidad Autónoma, así como proponer la articulación de subvenciones en materias propias de la Dirección.

La presente Orden tiene por objeto la convocatoria de una serie de becas dirigidas a la formación, con el objetivo de incrementar el número de profesionales que puedan colaborar a las empresas de transporte a eliminar las carencias detectadas, tales como la falta de formación y de organización adecuadas.

Las becas seleccionadas recogen áreas de especial interés en el sector del transporte bien porque se circunscriben en acciones con un gran potencial de desarrollo bien porque facilitan la incursión de los/as candidatos/as en la realidad del sector, en sus exigencias y en sus potencialidades.

Todo ello beneficia al sector donde prestan sus servicios, fortaleciendo el tejido económico del país, y a la propia Administración que se sirve de los resultados de la investigación para mejorar su gestión, por lo que este Departamento, ha estimado conveniente proseguir con la política de becas ya iniciada en pre-

politikarekin aurrera segitu eta unibertsitateko tituludunen prestakuntzarako bi bekatarako deia egitea.

Horretarako 2010erako hamar mila eta berrehun (10.200) euroko ordainketa-kreditu bat izango da, abenduaren 23ko 2/2009 Legearen bidez onartutako 2010erako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretako 10.0.1.06.21.0100.4.453.01.51421.002 .N kontu-sailetik, eta 2011rako hogeita hamar mila eta seiehun (30.600) euroko konpromiso-kreditu bat.

Bestetik, Agindu hau Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzeko 4/1999 Legera egokitu da.

Horrela bada, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta egitekoak finkatzen dituen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 4. artikuluak eta Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 10. artikuluak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen zituen Lehendakariaren uztailaren 30eko 20/2009 Dekretuaren 7. artikulu bidez zati batean aldatua izan zenak) ematen dizkidaten eskumenak erabiliz, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. titulua eta VII. tituluko II. eta III. kapituluak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntza eta diru-laguntzei buruzko gainontzeko xedapenak kontuan izanik

EBATZI DUT:

***Lehenengo artikulua.***– Agindu honen eranskinaren lehen oinarri-arauan zehaztuko diren alorretan unibertsitateko tituludunak prestatzeko Garraio Zuzendaritzaren bi (2) bekatarako deia egitea.

***Bigarren artikulua.***– Deialdiaren oinarri-arauak onartzea. Oinarri-arau horiek ere Aginduaren eranskinean daude jasota.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Agindu honen kontra, administraziobidea agortzen baitu, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuari, hilabeteko epean, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Jus-

cedentes ejercicios, y convocar dos becas de formación para titulados/as universitarios/as.

A tal efecto se cuenta con un crédito de pago para el año 2010 por importe de diez mil doscientos (10.200) euros con cargo a la aplicación presupuestaria 10.0.1.06.21.0100.4.453.01.51421.002.N en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010, aprobados por Ley 2/2009, de 23 de diciembre, por el se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010 y un crédito de compromiso para el año 2011 de treinta mil seiscientos (30.600) euros.

Por otro lado, la presente Orden se adapta a lo dispuesto en la Ley 4/1999 de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, sobre el Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En su virtud, y en ejercicio de la competencia que me atribuye el artículo 4 del Decreto 607/2009, de 24 de noviembre, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, así como por el artículo 10 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, modificado parcialmente por el artículo 7 del Decreto 20/2009, de 30 de julio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, puesto en relación con el título VI y los capítulos II y III del título VII del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y con las demás disposiciones aplicables a las ayudas y subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

RESUELVO:

***Artículo primero.***– Convocar dos (2) becas de la Dirección de Transportes, de formación para titulados/as universitarios/as en las áreas que se especifican en la base primera del anexo a esta Orden.

***Artículo segundo***.– Aprobar sus bases reguladoras, que constan como anexo a la presente Orden.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de

tizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Sailean, aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, bi hilabeteko epean.

***Bigarrena***.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko irailaren 1a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

ERANSKINA
OINARRI ARAUAK

***Lehenengoa***.– Deialdiaren xedea.

Agindu honen helburua da unibertsitateko tituludunak prestatzeko bi bekatarako dei egitea. Beka motak ondoren zehaztuko dira.

TB-1: logistikaren garapena eta ikerketa Euskadin.

TB-2: mugikortasun iraunkorra ezarri eta sustatzea.

***Bigarrena***.– Beken ezaugarriak.

1.– Bekak lehiaketa bidez emango dira.

2.– Beken iraupena eta baliabideak.

12 hilabeteko iraupena izango dute, eta esleipen-agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da kontatzen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Garraio Zuzendaritzaren bibliografia fondoak erabili ahal izango dituzte bekadunek prestakuntza lanerako.

3.– Bekak emateak eta hartzeak ez du kontratu edo estatutu bidezko inongo harremanik ezarriko bekadunaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren artean.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioak istripu, elbarritasun edo heriotza arriskuen kontrako aseguruak egingo dizkie bekadunei.

***Hirugarrena***.– Zenbatekoa eta ordainketa:

1.– Deialdi honetara, guztira, 40.800 bideratu dira, honela banatuta:

2010: 10.200 euro.

2011: 30.600 euro.

2.– Beka bakoitzaren zenbateko gordina: hamalau mila eta laurehun (14.400) euro.

Hilero 1.200 euro ordainduko zaie. Hilabetea bukatutakoan, egin beharreko lana zein egoeratan da-

Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

***Segunda***.– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de septiembre de 2010.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

ANEXO
BASES REGULADORAS

***Primera***.– Objeto de la convocatoria.

El objeto de la presente Orden es convocar dos becas para la formación de titulados/as universitarios/as, que se indican a continuación.

TB-1: desarrollo e investigación de la logística en Euskadi.

TB-2: implantación y fomento de la movilidad sostenible.

***Segunda***.– Características de las becas.

1.– Se concederán por el procedimiento de concurso.

2.– Duración de las becas y medios materiales:

El plazo será de 12 meses y se computará desde el día siguiente a la fecha de publicación de la Orden de adjudicación de las becas en el Boletín Oficial del País Vasco.

Los/as becarios/as dispondrán, para realizar sus funciones formativas, de los fondos bibliográficos de la Dirección de Transportes de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

3.– La concesión y disfrute de las becas no establecerá relación contractual o estatutaria alguna entre el/la becario/a y la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

4.– La Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi asegurará a los/as becarios/as contra riesgos de accidente, invalidez o muerte.

***Tercera***.– Cuantía y pago.

1.– La cuantía global destinada a la presente convocatoria asciende a 40.800 euros, distribuida de la siguiente forma:

2010: 10.200 euros.

2011: 30.600 euros.

2.– Importe bruto por cada beca: catorce mil cuatrocientos (14.400) euros.

Esta cantidad será satisfecha mensualmente por importe de 1.200 euros. Estos/as becarios/as deberán

goen azalduko duen memoria bat aurkeztu beharko dute bekadunek. Azkeneko bi hilabeteei dagozkien ordainketak egiteko, hamargarren f) oinarri-arauan jaso bezala, azterlana hautaketa-batzordeak onartu beharko du lehenbizi.

3.– Horretaz aparte, bi bekadunek lana burutzeko behar dituzten prestakuntza-ikastaro, bidaia eta ostatu gastuetarako, hamabi mila (12.000) euroko funts bat eratuko da, gehienez.

Bekadunek behar bezala egiaztatu beharko dituzte gastuak, gastua egin, eta, gehienez ere, bi hilabeteko epean. Ordainketak, berriz, Garraio zuzendaritzak baimena emandakoan egingo dira, harik eta funtsa agortu arte, ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuan ezarritakoari jarraituz.

***Laugarrena***.– Onuradunak.

Eskaria egiten dutenek eskabideak aurkeztekoan honako baldintza hauek bete eta egiaztatu beharko dituzte:

a) Espainiar nazionalitatea izan beharko dute, eta bizilekua, Euskal Autonomia Erkidegoan.

b) Zuzenbide edo Ekonomia Zientzietako goi mailako titulua.

c) Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren aurreko urteko bekarik ez jaso izana.

d) Laguntza eta diru-laguntza publikoen arloan egindako arau-hauste baten ondorioz jarritako zehapen irmo batengatik, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 63. artikuluaren arabera Euskadiko Aurrekontu Orokorren kontura dirulaguntza lortzeko eskubidea galdua ez izatea.

e) Une horretan, sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penalik ez izatea, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea dela bide debeku horrekin zigortua ere (1/1997 Legegintza Dekretua aldatzen duen otsailaren 18ko 4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen Xedapen Gehigarrietan seigarrena).

***Bosgarrena***.– Bekak kudeatzeko organoa.

Garraio Zuzendaritzari dagozkio Agindu honetan aurreikusitako beken kudeaketa-eginkizunak.

***Seigarrena***.– Eskabideak bete eta aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasi eta hamabost egun naturaleko epea utziko da.

presentar, al vencimiento de cada mes, una memoria relativa al estado del trabajo que deben realizar para su formación. El pago de las dos últimas mensualidades se realizara previa aceptación del estudio según lo indicado en la base décima, f).

3.– Se constituye un fondo común por un importe máximo de doce mil (12.000) euros que se destinará a la cobertura de gastos de asistencia a cursos de formación, traslado y de alojamiento precisos para la realización de los trabajos de los/as dos becarios/as.

Su importe se hará efectivo previa autorización de la Dirección de Transportes, y justificación suficiente de los citados gastos por cada uno de los/las becarios/as, en el plazo máximo de dos meses desde su devengo y hasta que se agote dicho fondo, de acuerdo con el Decreto 121/2006, de 13 de junio.

***Cuarta***.– Beneficiarios.

Los solicitantes habrán de reunir y acreditar a la fecha de presentación de solicitudes los siguientes requisitos:

a) Tener nacionalidad española y vecindad administrativa en el País Vasco.

b) Titulación académica de grado superior en Derecho o Económicas.

c) Para solicitar beca, será necesario no haber disfrutado ninguna beca de las convocadas por el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

d) No haber sido sancionado/a, durante el plazo que dure la sanción, con la prohibición de obtención de subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de Euskadi como consecuencia de sanción firme impuesta por infracción en materia de subvenciones o ayudas públicas, de conformidad con lo establecido en el artículo 63 de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

e) No estar cumpliendo sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación por razón de sexo ni estar sancionada con esta prohibición en virtud de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres según la disposición final 6.ª de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

***Quinta***.– Órgano gestor de las becas.

Corresponderá a la Dirección de Transportes la realización de las tareas de gestión de las becas previstas en la presente Orden.

***Sexta***.– Formalización y presentación de las solicitudes.

1.– El plazo de presentación de solicitudes será de quince días naturales a partir del día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– Eskaera eskabide-orri formalizatuan egin behar da. Eskabide-orria jaso eta aurkezteko lekua:

Garraio Zuzendaritza

Euskal Autonomia Erkidegoko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila

Donostia kalea, 1

Vitoria-Gasteiz 01010

Telefonoa: 945 01 97 41

3.– Behar bezala betetako eskabide-orriarekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Laugarren oinarri-arauan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak:

– Espainiar nazionalitatea NANa aurkeztuta egiaztatuko da edo, bestela, nazionalitatea egiaztatzen duen titulu juridikoaren bidez.

– Bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan duela egiaztatzeko, kasuan kasuko udal-egiaztagiria beharko du eskatzaileak.

– Titulazio akademikoa egiaztatzeko, eskabideak aurkezteko epean oinarri-arau honen bigarren puntuan zehaztutako bulegoetan titulu akademiko ofizialaren edo hura lortu izanaren egiaztagiriaren fotokopia aurkeztu beharko da, jatorrizko agiriarekin batera, erkatu ahal izateko. Atzerrian edota Espainiako ikastetxe ez ofizialetan eskuratutako tituluek konbalidatuta edo aintzatetsita egon beharko dute eta erabateko ondore juridikoak izan beharko dituzte aipatutako epean.

– Honako hauek adieraziko dituen zinpeko aitorpena: bat, une horretan ez dela laguntza eta dirulaguntza publikoen arloan egindako arau-hauste baten ondorioz jarritako zehapen irmo bat betetzen ari; eta bi, ezta, sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penalik betetzen ere, eta ez dagoela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea dela bide, debeku horrekin zigortua ere (otsailaren 18ko 4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen xedapen gehigarrietan seigarrena).

– Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak aurreko ekitaldian egindako deialdiko bekarik ez duela hartu eta hamaikagarren oinarri-arauan jasotako ezein bateraezintasun egoeratan ez dagoela adierazten duen zinpeko aitorpena.

b) Curriculum vitaea, xehetasun akademikoak, lanbide-esperientzia, hizkuntzen ezaguera eta interesgarritzat jotzen diren beste merezimendu batzuk jasoko dituena.

4.– Eskabideak, oinarri-arau honen bigarren puntuan eskabideak jasotzeko azaldutako lekuetan edo urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta

2.– La solicitud se hará mediante instancia formalizada, que podrá recogerse o solicitarse en:

Dirección de Transportes

Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes de la Comunidad Autónoma de Euskadi

C/ Donostia-San Sebastián n.º 1

01010, Vitoria-Gasteiz

Teléfono: 945 01 97 41

3.– La instancia de solicitud, debidamente cumplimentada, deberá presentarse acompañada de los siguientes documentos.

a) Documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos indicados en la base cuarta:

– La nacionalidad española se acreditará mediante la presentación del DNI o, en su caso, del título jurídico en que ésta se reconozca.

– La vecindad administrativa se justificará mediante el correspondiente certificado municipal que acredite la residencia habitual en algún municipio del País Vasco.

– La titulación académica, que deberá acreditarse dentro del plazo para la presentación de solicitudes, se justificará mediante la presentación de fotocopia del título académico oficial o del certificado de su obtención, que se presentarán a cotejo con el original en las oficinas señaladas en el punto segundo de la presente base. Los títulos obtenidos en el extranjero o en centros españoles no oficiales deberán estar convalidados o reconocidos y tener plenos efectos jurídicos en el plazo referido.

– Declaración jurada de no estar cumpliendo sanción como consecuencia de sanción firme impuesta por infracción en materia de subvenciones o ayudas públicas o sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación por razón de sexo ni estar sancionada con esta prohibición en virtud de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres según la disposición final 6.ª de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

– Declaración jurada de no haber disfrutado beca alguna de las convocadas por el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como, de no estar incurso en las causas de incompatibilidad recogidas en la base undécima.

b) Curriculum vitae en el que se hará constar los datos académicos, profesionales, conocimiento de idiomas y otros méritos que se consideren de interés.

4.– Las solicitudes podrán ser presentadas en el lugar indicado en el punto segundo de la presente base para la recogida de instancias o en los demás modos y lugares permitidos por la Ley de 30/1992, de 26 de

Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak onartzen dituen leku eta eran aurkeztu ahal izango dira.

***Zazpigarrena***.– Agirien gaineko okerrak zuzentzea.

Eskatzaileak aurkezturiko agiriak seigarren oinarri-arauan eskatutakoarekin bat ez datozela ikusiz gero, hala jakinaraziko dio organo kudeatzaileak eskatzaileari, eta hamar egun balioduneko epea utziko dio, okerrak zuzendu edo behar diren agiriak aurkezteko; gainera, adieraziko dio, hala egiten ez badu, bere eskaria besterik gabe atzera botako duela, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 42. artikuluak ezarritako eran (Lege horrek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen).

***Zortzigarrena***.– Bekadunen ebaluaketa eta hautaketa.

1.– Eskabideak aurkezteko epea amaitu, eta okerrak konpondutakoan, batzorde batek hautatuko ditu bekadunak; honakook izango dira batzordekideak:

– Batzordeburua: Garraioetako zuzendaria.

– Bi mahaikide:

Manuel Sánchez Jiménez jauna. Garraio Zuzendaritzako teknikaria.

David Alonso Alonso. Garraio Zuzendaritzako teknikaria.

– Idazkaria: Jose Manuel Anabitarte Fernández jauna.

2.– Hautaketa-batzordeak, Agindu honetan aurreikusten ez diren gaietarako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluaren II. kapituluan kide anitzeko organoentzat ezarritakoari jarraitu beharko dio.

3.– Hautaketa-batzordeak izangaien ebaluaketa eta hautaketa egiteko irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

a) 4 puntu emango zaizkie, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzeko apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuaren 3.1 artikuluaren (EHAA, 71, 2008-04-15) eta Dekretu hori aldatzeko otsailaren 24ko 48/2009 Dekretuaren 1. artikuluak egindako berridazketaren (EHAA, 51, 2009-03-13) arabera, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko B1 mailekin parekatzekoak diren titulu eta ziurtagiriren bat dutenei.

noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por Ley 4/1999, de 13 de enero.

***Séptima***.– Subsanación de documentación.

Si el órgano gestor de las becas observase que la documentación aportada por el/la solicitante no reúne los requisitos exigibles conforme a la base sexta, lo pondrá en su conocimiento y le concederá un plazo de diez días hábiles al objeto de que subsane las faltas o acompañe la documentación preceptiva con la indicación de que, si no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 4/1999, de 13 de enero, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Octava***.– Evaluación y selección de becarios/as.

1.– Finalizados los plazos de presentación y subsanación de solicitudes, la selección de los/as becarios/as se realizará por una comisión que estará integrada por:

– Un presidente: el Director de Transportes.

– Dos vocales:

D. Manuel Sánchez Jiménez. Técnico de la Dirección de Transportes.

D. David Alonso Alonso. Técnico de la Dirección de Transportes.

– Un secretario: D. José Manuel Anabitarte Fernández.

2.– La comisión de selección se regirá, en lo no previsto por esta Orden, por lo establecido, para los órganos colegiados, en el capítulo II del título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

3.– La comisión de selección deberá tener en cuenta los siguientes criterios para la evaluación y selección de los candidatos:

a) 4 puntos cuando se esté en posesión de alguno de los títulos o certificados que se equiparan con los niveles B-1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, de acuerdo con lo que se establece en el apartado 1 del artículo 3 del Decreto 64/2008, de 8 de abril, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y adecuación de los mismos al Marco Común Europeo de Referencia (BOPV n.º 71, de 15 de abril), de conformidad con la redacción dada al mismo por el artículo primero del Decreto 48/2009, de 24 de febrero (BOPV n.º 51, de 13 de marzo), de modificación del Decreto 64/2008.

6 puntu emango zaizkie, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzeko apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuaren 3.2 artikuluaren (EHAA, 71, 2008-04-15) eta Dekretu hori aldatzeko otsailaren 24ko 48/2009 Dekretuaren 1. artikuluak egindako berridazketaren (EHAA, 51, 2009-03-13) arabera, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko B2 mailekin parekatzekoak diren titulu eta ziurtagiriren bat dutenei.

8 puntu emango zaizkie, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzeko apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuaren 3.3 artikuluaren (EHAA, 71, 2008-04-15) eta Dekretu hori aldatzeko otsailaren 24ko 48/2009 Dekretuaren 1. artikuluak egindako berridazketaren (EHAA, 51, 2009-03-13) arabera, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko C1 mailekin parekatzekoak diren titulu eta ziurtagiriren bat dutenei.

b) Europar Batasuneko hizkuntzen jakite-maila, gehienez ere, 16 puntu.

4 puntu emango zaizkie, otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuaren (martxoaren 12ko EHAA, 50. zenbakia), eta indarrean dagoen gainerako legeriaren arabera, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko B-1 edo B-2 mailekin parekatzekoak diren frantseseko, ingeleseko edo alemaneko titulu eta ziurtagiriak dituztenei.

8 puntu emango zaizkie, otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuaren (martxoaren 12ko EHAA, 50. zenbakia) eta indarrean dagoen gainerako legeriaren arabera, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko C-1 mailarekin parekatzekoak diren frantseseko, ingeleseko edo alemaneko titulu eta ziurtagiriak dituztenei.

c) Aukeratzeko lau erantzun izango dituen 50 galderako test moduko azterketa. Galderak estatu mailako eta nazioarteko salgaien eta bidaiarien garraioaren ingurukoak eta agentzia, trantsitario eta biltegizain-banatzaileen arlokoak izango dira. Gehienez ere, 30 puntu.

Ondo erantzundako galderengatik 0,6 puntu emango dira, eta gaizki erantzundakoengatik 0,3 puntu kenduko. Erantzun gabe utzitakoak edo erantzun bat baino gehiago dituztenak ez dira kontuan hartuko, ez puntuak emateko, ez kentzeko.

4.– Azalduriko merezimendu horiek aztertutakoan, batzordeak elkarrizketa bat izango du hirugarren artikuluaren arabera, gehienez lor daitezkeen 84 puntu horietatik gutxienez 18 lortu dituztenekin, eta elka-

6 puntos cuando se esté en posesión de los títulos o certificados que se equiparen con los niveles B-2 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, de acuerdo con lo que se establece en el apartado 2 del artículo 3 del Decreto 64/2008, de 8 de abril, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y adecuación de los mismos al Marco Común Europeo de Referencia (BOPV n.º 71, de 15 de abril), de conformidad con la redacción dada al mismo por el artículo primero del Decreto 48/2009, de 24 de febrero (BOPV n.º 51, de 13 de marzo), de modificación del Decreto 64/2008.

8 puntos cuando se esté en posesión de alguno de los títulos o certificados que se equiparan con los niveles C-1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, de acuerdo con lo que se establece en el apartado 3 del artículo 3 del Decreto 64/2008, de 8 de abril, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y adecuación de los mismos al Marco Común Europeo de Referencia (BOPV n.º 71, de 15 de abril), de conformidad con la redacción dada al mismo por el artículo primero del Decreto 48/2009, de 24 de febrero (BOPV n.º 51, de 13 de marzo), de modificación del Decreto 64/2008.

b) Nivel de conocimientos de idiomas de la Unión Europea hasta un máximo de 16 puntos.

4 puntos cuando se esté en posesión de alguno de los títulos o certificados que se equiparan con el nivel B-1 o B-2 de francés, inglés o alemán del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto 46/2009, de 24 de febrero (BOPV n.º 50, de 12 de marzo) y demás legislación vigente.

8 puntos cuando se esté en posesión de alguno de los títulos o certificados que se equiparan con el nivel C-1 de francés, inglés o alemán del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto 46/2009, de 24 de febrero (BOPV n.º 50, de 12 de marzo) y demás legislación vigente.

c) «Test» con cuatro respuestas alternativas, sobre cincuenta preguntas relacionadas con temas de transporte nacional e internacional de mercancías, transporte nacional e internacional de viajeros, agencia, transitario y almacenista-distribuidor, valorado en 30 puntos.

Las preguntas tipo «test» correcta y erróneamente contestadas se valoraran con 0,6 y -0,3 puntos cada una, respectivamente. Las preguntas no contestadas o que contengan más de una respuesta no puntuarán, positiva ni negativamente.

4.– Analizados los méritos anteriormente señalados, la Comisión entrevistará a aquellos/as candidatos/as que hubiesen obtenido como mínimo dieciocho puntos de los ochenta y cuatro posibles según el

rrizketaren arabera, 0tik 30 puntura bitartean emango die.

5.– Beka bakoitzerako bekadun bat aukeratuko du batzordeak, eta hautaketa-prozesuko puntuazio orokorraren arabera antolaturiko ordezkoen zerrenda bat osatuko du.

6.– Hautaketa-batzordeko idazkariari dagokio txostena eta bekak emateko edo eman gabe uzteko batzordeak egindako ebazpen-proposamena Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuari aurkeztea.

***Bederatzigarrena***.– Beken esleipena.

1.– Bekak Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren Agindu arrazoitu bidez esleituko dira eta horrek administrazio bidea agortuko duenez, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio sailburuari berari edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, organo horri hala jakinarazi ondoren. Lehenengo errekurtsoa aurkezteko hilabeteko epean izango da, eta, bigarrenerako, bi hilabetekoa.

2.– Bekak emateko kasuan kasuko aginduak, Agindu hau indarrean jarri eta hiru hilabeteko epean jakinaraziko zaizkie interesdunei. Nolanahi ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko dira, jende orok jakin dezan, eta bigarren oinarri-arauan aurreikusitakoari jarraituz, bekaldia noiztik aurrera hasten den zehazteko.

3.– Aurreko puntuan adierazitako epean ez bada beka emateko berariazko agindurik eman, interesdunek ezetsitzat jo beharko dute eskabidea, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

4.– Bekadunen batek bekari uko egiten badio, jardunbidea bukatutzat joko da, eta oinarri-arau hauetan aurreikusitako eskubide guztiak galdutzat joko dira.

5.– Bekadunak bekari uko egin diolako, edo bestelako arrazoiren batengatik, beka-eskubidea galduz gero, Hautaketa batzordeak ordezko gisa proposatu duen izangaiari emango zaio beka, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren Agindu bidez.

***Hamargarrena***.– Onuradunen betebeharrak.

Onuradunak honako betebehar hauek izango ditu:

a) Emandako diru-laguntza onartzea, eta horrek berekin dakar oinarri-arau hauetan eta beka esleitzeko aginduan ezarritako arau guztiak ere onartzea.

punto tercero, evaluándose, la mencionada entrevista, de cero a treinta puntos máximo.

5.– La Comisión seleccionará un/a becario/a para cada uno de las becas, así como designará una relación de suplentes ordenada en función de la puntuación global del proceso selectivo.

6.– Corresponderá a la Comisión de selección, elevar al Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes el informe elaborado por la propia Comisión de Selección con propuesta de resolución para la asignación de las becas o, en su caso, para que las mismas se declaren desiertas.

***Novena***.– Adjudicación de las becas.

1.– La adjudicación de las becas se hará por Orden motivada del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, que agotará la vía administrativa pudiéndose recurrir potestativamente en reposición ante el mismo o impugnarlo directamente ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco mediante el correspondiente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de un mes y dos meses, respectivamente.

2.– Las orden de adjudicación de las becas será notificada a los/as interesados/as dentro de los tres meses a contar desde la entrada en vigor de la Orden por la que se convocan las becas reguladas en las presentes bases, sin perjuicio de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, para su general conocimiento y a efectos de determinación del inicio del cómputo del plazo para su disfrute según lo previsto en la base segunda.

3.– En el supuesto de no notificarse Orden expresa de adjudicación de las becas dentro del plazo indicado en el punto 2 anterior, los/as interesados/as podrán entender desestimadas sus solicitudes a los efectos previstos en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del procedimiento administrativo común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

4.– La renuncia de los/as becarios/as adjudicatarios dará lugar a la terminación del procedimiento, con pérdida de todos los derechos previstos en las presentes bases.

5.– En caso de renuncia u otra causa de pérdida de derecho a la beca, mediante Orden del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, se podrá conceder la misma al aspirante propuesto como suplente por la comisión de selección.

***Décima***.– Obligaciones de los/as beneficiarios/as.

El/la beneficiario/a de cada beca estará obligado/a a:

a) La aceptación de la subvención concedida que conlleva la de todas las normas fijadas en las presentes bases, y en la Orden de otorgamiento. En es-

Horrela, bada, beka eman zaiola jakinarazten zaion egunetik hasi eta 15 eguneko epean onuradunak diru-laguntzari berariaz uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko dugu.

b) Beka eman duen erakundeari egin nahi dituen egiaztapenak burutzen utzi beharko dio; orobat Ekonomia Kontrolerako Bulegoari, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntzen eta bestelako laguntzen gaineko kontrola egin dezan, eta Kontuen Euskal Epaitegiari, araudi berezian ezarriak dituenak betetzeko.

c) Beka emateko erabakia hartzeko kontuan izan diren betekizunak betetzen dituela egiaztatzeko agiriak aurkeztea beka eman duen Administrazioari, eta hurrengo bi oinarri-arauetan jasotako bateraezintasun egoeraren bat gertatu edo kontuan hartutako egoeraren bat aldatuz gero, jakinaraztea, horren berri izan eta, gehienez ere, hamar eguneko epean.

d) Lehenengo oinarri-arauan jasotako helburua betetzen ez bada, edo-eta onuradunak oinarri-arau hauetan eta beka emateko aginduan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badu, organo aginpidedunak, onuradunari entzun ondoren, laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat deklaratuko du; eta halakorik izanez gero, dagokion diru-kopurua Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzultzera behartuko du, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak, eta diru-laguntzetarako betebeharrak betetzen direla zaintzeko gainontzeko arauek ezarritakoa betetzeko. Kopuru hori diru-sarrera publikotzat joko da legezko ondoreetarako. Horrek guztiak ez du galaraziko, ordea, bestelako zehapenak jartzea, eta kalteengatiko ordainak eta, halakorik izanez gero, erantzukizun penala ere eskatzea.

e) Garraio Zuzendaritzako arduradunak edukiari, lana burutzeko lekuari eta jarraitu beharreko metodoari buruz, eta lanak burutzearekin erlazionaturiko gainontzeko alderdien gainean zehaztuko dizkien jarraibideak bete beharko dituzte. Gainera, hirugarren oinarri-arauko ondorioetarako, lanak zein egoeratan dauden azaltzeko txostenak aurkeztu beharko dituzte hilabetean behin.

f) Bekaldia bukatu baino hamabost egun lehenago, azterlanaren ale bat aurkeztu beharko dute hautaketa-batzordeak onar dezan.

te sentido si en el plazo de 15 días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención el adjudicatario no renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) El sometimiento a las actuaciones de comprobación, que pueda efectuar la entidad concedente, y a las de control que corresponden a la Oficina de Control Económico en relación con las ayudas y subvenciones percibidas con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, además de a las previstas por la normativa específica del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

c) Acreditar ante la Administración concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones que determinan la concesión de la beca y el mantenimiento de los mismos, así como comunicar las circunstancias sobrevenidas de incompatibilidad o de alteración de las condiciones de las mismas recogidas en las dos bases siguientes, en el plazo máximo de diez días desde que se tenga conocimiento de las mismas.

d) En caso de que no se cumpla la finalidad recogida en la base primera o de incumplimiento por el becario de cualquiera de las condiciones establecidas en las presentes bases y en la Orden de otorgamiento, por el órgano competente, previa audiencia del/la interesado/a, se declarará la pérdida del derecho a la percepción de la ayuda y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco el importe que corresponda en cumplimiento del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, y el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y de las demás normas reguladoras del control de cumplimiento de las subvenciones. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a los efectos legales pertinentes. Todo ello sin perjuicio de las posibles sanciones que puedan imponerse, así como de las indemnizaciones por daños y perjuicios que pudieran exigirse, y, en su caso, de la responsabilidad penal.

e) Los/as beneficiados/as con las becas deberán cumplir las directrices que les señale el responsable de la Dirección de Transportes, en cuanto se refiere al contenido, lugar de elaboración, método a seguir en su desarrollo y demás aspectos relacionados con la ejecución de los trabajos de formación. Asimismo deberán presentar memorias mensuales del estado de los trabajos a los efectos de la base tercera.

f) Quince días antes de la finalización del plazo de cada una de las becas se deberá presentar, un ejemplar del estudio realizado a la aprobación de la comisión de selección.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esparruan ezaugarri bereko laguntzei aplika dakizkiekeen gainerako arauak.

***Hamaikagarrena***.– Bateraezintasuna.

Beka hauek bateraezinak dira aldi berean soldatapeko edozein lan izatearekin, beste edozein erakunde publiko zein pribatuk helburu bererako emandako beste beka edo laguntzaren baten onuraduna izatearekin, eta beka horiek berez eskatzen duten lana behar bezala burutzea galaraziko duen beste eginkizunen bat izatearekin.

g) Las demás preceptivas que sean de aplicación a las ayudas de las características de la presente concedidas en el ámbito de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

***Undécima***.– Incompatibilidad.

El disfrute de las becas será incompatible con la realización de cualquier trabajo remunerado, con la percepción de otra beca o ayuda que para el mismo fin pudiera ser otorgada por cualquier otra institución pública o privada y con cualquier ocupación que impida un adecuado desarrollo de los trabajos inherentes a las mismas.